



ESPEDIENTEA: 4-2026

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEARENA, 2026ko APIRILAREN 21ekoa, OSASUN-ZENTRO BATERA ERAMAN BEHAR IZAN DUTEN BIZILAGUN BATI GERTATUTAKOAREN AZTERKETA ONARTZEKO, EIBARKO ERTZAIN-ETXEKO ZIEGETAN ATXILOTUTA EGON BITARTEAN ATAKE KATATONIKOREN BAT JASAN IZANAREN ZANTZUAK ERAKUSTEAREN ONDORIOZ.

Lehenengoa.- Apirilaren 21ean, Segurtasun sailburuaren jakinarazpen bat jaso dugu. Bertan, Poliziaren Legearen Testu Bategineko 17. artikulua 2 b) atala aipatu dute. Jakinarazpenak horrela dio:

“2026ko apirilaren 21ean, Barne Arazoetako Burutzak barne-ikerketari bati ekin dio, Eibarko Ertzainetxeko ziegetan atxilotutako gizon bat ospitalera eramane behar izan dutela jakindakoan. Bizilagun horrek, ustez, eraso katatonikoren bat jasan izanaren sintomak azaldu ditu, baina bere egoera oraindik baieztatu gabe dago. Zehatz-mehatz, Eibarko Ertzainetxeko agenteak atxilotuak bere egoteagatik dituen eskubideak irakurtzeko asmoz ziegara sartu direnean, gizona lurrean etzanda aurkitu dute, zurrun, bi besoak altxatuta eta agenteen jarraibideei jaramonik egin gabe. Gizon hori oraingoz ospitalean dago.

Gertakariak 2026ko apirilaren 21eko 1:30ak aldera izan dira.

Gertakariak bizilagun hori Ertzainetxean egon bitartean izan direnez, adierazitako guztia jakinarazi nahi dizut, egoki irizitako ondorioak izan ditzan.”

EXPEDIENTE:4-2026

ACUERDO DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO DE 21 DE ABRIL DE 2026, POR EL QUE SE ASUME EL ESTUDIO DE LO SUCEDIDO A UNA PERSONA QUE HA TENIDO QUE SER TRASLADADA A UN CENTRO SANITARIO POR MOSTRAR SIGNOS DE HABER SUFRIDO ALGÚN TIPO DE ATAQUE CATATÓNICO CUANDO ESTABA DETENIDA EN LOS CALABOZOS DE LA ERTZAINA-ETXEA DE EIBAR.

Primero.- El 21 de abril se ha recibido una comunicación del Consejero de Seguridad en la que, con invocación del artículo 17. 2 b) del Texto Refundido de la Ley de Policía, dice lo siguiente:

“En fecha 21 de abril de 2026, la Jefatura de Asuntos Internos ha procedido a la apertura de una investigación interna tras tener conocimiento de que un varón que se encontraba detenido en los calabozos de la Ertzain-etxea de Eibar ha tenido que ser trasladado a un centro hospitalario por presentar síntomas de haber sufrido, presuntamente y a falta de confirmación, algún tipo de ataque catatónico. En concreto, cuando personal de la Ertzain-etxea de Eibar accedió a la celda para la lectura de sus derechos como detenido, encontraron al varón tumbado en el suelo, en estado rígido, con los dos brazos levantados y sin atender a las indicaciones de los agentes. A día de hoy, el varón permanece ingresado en el hospital. Los hechos han acontecido sobre las 1:30h. del mismo día 21 de abril de 2026.

Habida cuenta de que los hechos se han producido mientras esta persona se encontraba en dependencias policiales, pongo todo lo expuesto en su conocimiento para aquellos efectos que considere oportunos.”



Bigarrena.- 2026ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, Batzorde honek goian aipatutako gertakariak aztertzea eta horri buruzko txostena egitea erabaki du. Horretarako, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 17.2 artikulua emandako eskumena baliatu du.

Hirugarrena.- Hori egiteko beharrezko informazioa eskuratzeko aldera, Batzordeak erabaki du honako hau eskatzea Segurtasun Saileko Segurtasun Sailburuordeari:

a) Jakinaraztea Segurtasun sailburuaren komunikazioan aipatutako gertakariak ikertzeko eginbide judizialik hasi ote den. Hala gertatuz gero, horiek zein epaitegitan gauzatu diren eta horien erreferentzia-signatura adierazi behar dira.

b) Bidaltzea Ertzaintzaren Barne Gaietarako Buruzak hasitako barne-ikerketari buruzko eginbideen kopia bat, atxiloketa gertatu denetik Segurtasun sailburuaren jakinarazpenean azaldutako egoeran ziegan aurkitu duten arte zer gertatu den argitzeko.

c) Bidaltzea Batzorde honi atestatuaren edo atestatuaren kopia bat, bizilagun horren atxiloketaren inguruabarrei eta Ertzaintzean hura zaintzeko egindakoari lotuta.

d) Jakinaraztea atxiloketa gertatu den lekuan eta egunean polizia-jarduketa jaso lezaketeko bideozaintzako kamerak instalatuta egon ote diren. Baiezkoan, aztertutako gertakariak izandako egun eta orduari dagozkien grabazioak Batzorde honi bidaltzeko eskatu nahi dizuegu.

Segundo.- En sesión celebra el mismo 21 de abril de 2026, esta Comisión, en ejercicio de la atribución conferida por el artículo 17.2 de la Ley de Policía del País Vasco, acuerda proceder al estudio e informe sobre los hechos arriba reseñados.

Tercero.- A fin de disponer de la información necesaria para su realización, la Comisión acuerda interesar de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Seguridad que:

a) Informe sobre la eventual incoación de actuaciones judiciales de investigación que pudiera producirse acerca de los hechos a los que se refiere la comunicación del Consejero de Seguridad, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de la signatura de referencia de las mismas.

b) Remita una copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de lo sucedido desde que se produjo la detención hasta el hallazgo en la celda en el estado descrito en la comunicación del Consejero de Seguridad de la persona que tuvo que ser trasladada a un centro hospitalario.

c) Se envíe a esta Comisión una copia del atestado o atestados policiales elaborados sobre las circunstancias de la detención de la mencionada persona y sobre el desarrollo de su custodia en dependencias policiales.

d) Se le informe de si en el lugar y la fecha en la que se produjo la detención se encontraban instaladas cámaras de videovigilancia que pudieran haber recogido la actuación policial. En caso afirmativo, se solicita la remisión a esta Comisión de las grabaciones correspondientes a la fecha y hora en la que ocurrieron los hechos objeto de estudio que se obtengan.



f) Era berean, jakinaraztea atxilotetan parte hartutako agenteek soineko kamerarik eraman ote duten eta, baiezkoan, esatea kamera horiek erabili ote dituzten. Azken kasu horretan, egindako grabazioen kopia eskatu nahi dugu.

g) Batzorde honi jakinaraztea Eibarko Ertzainetxeak bideozaintza-sistematik ote duen atxilotzeko eremuetan eta, hala bada, bideozaintza-sistema hori indarrean egon ote den atxilotua bertan egon den bitartean.

h) Eskatzea Ertzaintzaren Zuzendaritzak erreferentziako norbait izendatzea, Batzorde honekin harremanetan jartzeko bide egokia ezartzeko, espediente honen instrukzioa arintze aldera.

Laugarrena.- Segurtasun sailburuaren idazkian azaldutako gertakariei buruzko ikerketa judiciala hasiz gero, Batzorde honek dagokion epaitegiari jakinaraziko dio erabaki honen edukia. Gainera, aurreko puntuan aipatutako administrazio arloko dokumentuak eskuratzeko bere onespena eskatuko du. Hori egiteko Poliziari buruzko Legearen 19.4 artikuluan xedatutakoan oinarritu da.

Bosgarrena.- Batzordeak Segurtasun Sailburuordetzari jakinaraziko dio epaitegiari egindako jakinarazpena eta hartutako erabakia.

Bilbon, 2026ko apirilaren 24an

f) Se le informe, igualmente, de si los agentes intervinientes en la detención portaban cámaras de cuerpo y, en caso afirmativo, si las utilizaron. Se solicita en este último supuesto copia de las grabaciones que se hubieran realizado.

g) Se informe a esta Comisión de si la Ertzainetxea de Eibar cuenta con un sistema de videovigilancia en las dependencias de detención y, e. En caso afirmativo, si dicho sistema de videovigilancia fue activado durante el tiempo en el que la persona detenida permaneció allí.

h) Se interesa que por la Dirección de la Ertzaintza se indique una persona de referencia para establecer el oportuno canal de comunicación con esta Comisión, a los efectos de agilizar la instrucción del presente expediente.

Cuarto.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 19.4 de la Ley de Policía, en el supuesto de que se inicie una investigación judicial sobre los hechos relatados en el escrito del Consejero de Seguridad, esta Comisión pondrá en conocimiento del Juzgado correspondiente el contenido de este Acuerdo y solicitará su aprobación para acceder a los documentos administrativos a los que se refiere el punto anterior.

Quinto.- La Comisión informará a la Viceconsejería de Seguridad de la comunicación al Juzgado y de la decisión que adopte.

En Bilbao a 24 de abril de 2026.

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordekoburua

El Presidente de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

Enrique Lucas Murillo de la Cueva

Harremanetarako helbidea/Dirección de contacto: polizia-gardentasuna@euskadi.eus